



TRIKU TRAIL MENDI LASTERKETAKO ARAUTEGIA

1. DATA ETA ORDUA:

Triku Trail mendi lasterketa **2021EKO EKAINAREN 27ean** izango da. Goizeko 9:30etatik aurrera, irteera eta helmuga Etxarri Aranazko kanpineko inguruetan kokatuta egongo da.

2. IBILBIDEA:

Ibilbideak 21 kilometrotako luzera izanen du eta 1.400 metroko desnibel positiboa.

3. PARTE-HARTZEA:

18 urte baino gehiagoko kirolari, korrikalari edo mendizalek, federatua nola federatu gabeak, parte hartu ahalko du, beti ere araudian jasotakoa onartu ezker. Antolakuntzak, parte-hartzaile guztiei, mediku errekonozimendu bat eta esfortzu proba bat egitea aholkatzen die, parte-hartzaile guztiek kirol jardueratik eratorritako arrisku guztiak onartuz.

4. KATEGORIAK (Probaren urtean betetako urteak):

EMAKUMEZKOAK:

Nagusia: 18 urtetik gorakoak.

Beteranoak: 40 urtetik gorakoak.

GIZONEZKOAK:

Nagusia: 18 urtetik gorakoak.

Beteranoak: 45 urtetik gorakoak.

5. IZEN-EMATEAK:

Gehienezko korrikalari kopurua 250ekoa izango da.

Izen-emateak www.kronoak.com webgunearen bitartez egingo dira **2021EKO MAIATZAREN 24KO 20:00TATIK EKAINAREN 15era** edo 250 korrikalariren kopurua bete arte.

Korrikalariek 15 euro ordainduko dituzte, izen ematea gauzatzeko.



Izen-ematearen zenbatekoak ordaindu eta gero, korrikalariari proban parte hartzeko eskubidea ematen zaio eta ardura zibileko eta istripuetako aseguruak hartzen ditu.

Izen-emateak ematen duen ardura zibileko eta istripuetako aseguruak, dortsalaren jabearentzat izango da soilik.

Antolakuntzak bere konpromezuetarako dortsalak gordeko ditu.

6. DORTSAL BANAKETA:

Jende pilaketak eta Nafarroa mailako mugimenduak ekiditearren, Iruñeako Tafalla kaleko 22. zenbakian dagoen A4XKM denda, dortsal banaketa puntua izanen da, Ekainaren 21etik aurrera.

Aipatu dendan jasotzen ez diren dortsalak, 2021eko Ekainaren 25 eta 26an, Etxarriko kanpiñeko harreraren banatuko dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00tara. Lasterketaren egunean, 2021eko Ekainaren 27an goizeko 8:00etatik 9:15tara, aurre-irteera gunean kokatuko diren mahaietan.

Ekainaren 25 eta 26ko zein 27ko dortsalen banaketan jende pilketak ekiditearren, bata bestehengandik 2 metroko distantzian, hiru mahai prestatuko dira. Horrela hiru bloketan bereiztuko dira A4XKM dendan banatu ez diren dortsalak. **Triku Traileko** bolondresak arduratuko dira dortsal banaketaz.

Nahitaezkoa da NAN edo federazio-txartela aurkeztea. Horrekin batera, **“Osasun-adierazpena”**, inprimatua eta egoki betea.

7. IBILBIDEA:

Ibilbidea behar bezala seinaleztatua egongo da. Markaketa zintaz, egurrezko seinalez edo/eta boluntarioen bidez.

8. ANOA PUNTUAK:

Elikagaiak likidoak baino ez dira izango. Parte-hartzaile bakoitzak **bere ontzia eramango du** edateko, eta boluntarioek botila edo pitxer batekin beteko dute, parte-hartzailearekin kontakturik izan gabe.

Boluntarioek antolakuntzak emandako FFP2 maskara jantzita izango dute eta postu guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da, eskuak behar bezala garbitzeko.

Hiru anoa-puntu ezarriko dira:

1. Auntzetxe aterpea, lasterketako 5. kilometroan.
2. Lizarrustiko mendatea, lasterketako 10. kilometroan.
3. Iraigorri parajea, lasterketako 16. kilometroan.

Eremu horretan egon beharreko denbora, ahalik eta murriztena izango da.

Edaria eta fruta barruan dituen poltsa bat emango zaie korrikalariei helmugaratzean.



9. SARIAK (Sariak akumulagarriak izango dira):

1. emakumezko nagusia: Txapela, garaikurra eta "Km 0" lotea.
2. emakumezkoa nagusia: Garaikurra eta "Km 0" lotea.
3. emakumezkoa nagusia: Garaikurra eta "Km 0" lotea.

1. gizonetzkoa nagusia: Txapela, garaikurra eta "Km 0" lotea.
2. gizonetzkoa nagusia: Garaikurra eta "Km 0" lotea.
3. gizonetzkoa nagusia: Garaikurra eta "Km 0" lotea.

1. emakumezkoa herritar: Garaikurra.
1. gizonetzkoa herritar: Garaikurra.

10. KONTROLA:

Lizarrustiko anoa puntuan (10. kilometroan) kontrola egongo da. Korrikalari guztiak derrigorrez pasa beharko dira kontrol-puntu horretatik.

11. DENBORA MUGAK:

Ibilbidean zehar denbora muga markatuko duten bi puntu izango dira.

Lehen Lizarrustiko anoa puntuan (10. km.): Hortik lasterketa hasi eta 1h 45 minuto azpitik pasa beharko da. Aipatutako denbora horretatik gora pasatzen den korrikalaria, lasterketatik kanporatua izango da eta korrikan jarraitu ezker bere ardurapean egingo du.

Bigarren denbora muga Iraigorriko anoa puntua izango da eta bertatik 3h azpitik pasa beharko da. Aipatutako denbora horretatik gora pasatzen den korrikalaria, lasterketatik kanporatua izango da eta korrikan jarraitu ezker bere ardurapean egingo du.

Edozein kasutan ere, denbora mugak betetzen ez dituzten korrikalariak kanporatzeaz gain, antolakuntzak ere eskumen guztiak ditu, antolakuntzako arauak betetzen ez duen korrikalari, markatutako ibilbidea osatzen ez duena, dortsala ikusgai ez duena, antolakuntzaren aholkuak eta aginduak betetzen ez duena edo gainontzeko korrikalariekiko errespeturik eza eta kiroltasun exkaxeko jarrera azaltzen duen korrikalariak, lasterketatik kanpo uzteko.



12. KRONOMETRAIA:

Kronometraia, dortsalean itsatsita doan txip bidez egingen da. Parte-hartzaileak, sailkapenak argitaratu eta 30 minutuko epea izango du antolakuntzari edozein erreklamazio egiteko. Tarte hori pasatuta sailkapenak ofizilak izango direlarik.

13. INGURUGIROA:

Lasterketa Etxarri Aranazko pagadi eta hariztietatik barna izango da eta erabat debekatua dago edozein zabor mota lurrera botatzea. Horretarako antolakuntzak zabor bilketa puntuak prestatuko ditu.

Oinarritzko arautzat dugu hau, beraz, zaborra behar ez den tokira botatzen duen korrikalaria lasterketatik kanporatua izango da.

14. OSASUN ASISTENTZIA:

Antolakuntzak, ibilbideko gune estrategikoetan sorospen puntuak ezarrita edukiko ditu.

15. SEGURTASUNA:

Edozein baldintza ematen dela ere, antolakuntzak eskumen guztia du lasterketa ibilbide alternatibo batetik desbideratzeko, eta beharrezkoak estimatzen dituen aldaketak egiteko ere. Ala nola lasterketa bertan behera uzteko eskumena ere badu antolakuntzak, eguralditik eratorritako baldintzak behartuta eta nahitaezko beharreatatik. Korrikalariaren ongizatea eta segurtasuna bermatzea izanen da, edozein erabaki hartzeko irizpide nagusia. Erabakia lasterketako zuzendaritza komitean hartuko da.

16. ISTRIPUETAN LAGUNTZA:

Parte-hartzaileak behartuta daude, istripua izan duen/duten korrikalariak laguntzea. Antolakuntzako boluntarioen puntutan (anoak, kontrol guneak, bide-gurutzeetan...) edozein gertakizunen berri ematea behartuta daude parte-hartzaile guztiak.



17. ARDURA:

Antolakuntzak bere gain hartuko ditu ibilbidean gertatutako istripuak. Baina ez du inongo ardurarik izango istripua korrikalariaren arduragabekeriak probokatu badu. Parte-hartzaileak bere buruari zein beste edonori eragindako kalteen ardura guztia izango du.

18. PARTE-HARTZE IRUZURGILEA:

Dorsalik gabe, edo beste norbaitenarekin, bere nortasuna ordezkatzuz, parte-hartzen duen korrikalaria lasterketatik kanporatua izango da eta hurrengo edizioetan parte-hartzea galaraziz zigortuak izango dira korrikalaria eta dortsalaren titularra.

19. IRUDI ESKUBIDEAK:

Parte-hartzaile guztiek antolakuntza eta bere babesleak baimentzen ditu lasterketaren testuinguruan ateratako irudi zein bideoak denboran mugarik gabe, erabili eta publiko egiteko.

20. ITZULKETAK ETAK IZEN-EMATEEN ALDAKETAK:

Dorsalen itzulketak eta/edo izen-emateen aldaketak lasterketa baino 10 egun lehenagorarte onartuko dira.